

KRESALA⁽¹⁾

Beste izkera batzuetan, gurearen ingurukoetan beintzat, naiz dala españolen «novela», naiz frantzesen «roman», naiz ingelesen «fiction», irakurgaiaren izenak bere aldamenean guñsitan ikusten du apaiz baten izena. Baziran antšina elizgizonen artean irakurgailari ots andikoak: Pio bigarrenak, aita santu izatera eldu-orduko, egin omen zuen edo zituen; Cambraiko apezpiku andi Felonek bere *les aventures de Télémaque-ri*, beste edozein libururi baiño zorrago dio izenaren entzutea. Apezpikua zan Camus ere, Belleykoa, Saint François de Sales-en adiskide mami, kutuna, irakurgai gaiztoai bidea galerazteko berak bere eskuz onak egin zituena; baita Huet, erregegeiaren maisua ta irakurgailari artetsua ere apezpikua zan, Avrancheskoa.

¿Nondikoa du izen orrek, gure egunetan, aizeak kea aienatzeko bezela, elizgizonen izena urrutiratzeko indarra?

¿Nola da izen orrek, euskerazkotueran, bere indar puzkarik ere ez izatea? Len aipatu dedan apezpiku Avrancheskoak bere lanari iñorñok ere sapuzki begiratu etzitzaion, maiz esan oi zuen: *il y a romans et romans* (2), «irakurgaiak eta irakurgaiak daude». Itz auekin adirazi nai

(1) KRESALA, Domingo Agirre abadeak egindako irakurgeta. Duraugo-n, Florentino Elosu-ren etsean. Kresala, gipuzkoarrez gezala, itsasura da.

(2) Eztakit nork nori ikasi zion esakerau: ala berak bere kide Molièreri, ala Molièrek berari. Onen komedia baten irakurten da: *il y a fagots et fagots* «sendorrek eta sendorrek daude».

ziguna da irakurgaien artean batzuek irakurgarriak dirala, besteak ez irakurtekoak; batzuek on egiten dutela, besteak kalte; batzuek, elizan ezpada ere, elizpean, karreran, ederki bizi ditezkel; besteak berriz ardentegia bera bizitoki andizurentsuegia (1) dutela.

Euskeraz, Jaunari mila esker, irakurgaiak ezin ezarri ditezke ezkereskui. Ezkerrean bat ere ezta; diranak (gutši, gaisoak, oso gutši) eskuian daude; guziak (irurak, irutšo baizik eztira-ta) Elizaren aterbean sortu dira: PERU ABARCA, Moguel zarrak egiña; AUÑEMENDIKO LOREA, Agirre jaunak orain sei-zazpi urte sortua; irugarrena aita beraren semetso jaio-berri, itsasbelar-usai gozodun KRESALA. Badira or-emenka beste tšiki-zipor, irakurgai-izena luzanga ta ipui-izena labursko duten bat edo banakak. Auek ere, geienok beintzat, bonetepean izan dute muña, ernemuña ta alsuma. Eta gaurgero ta beti alabiz.

Ar dezagun KRESALA esku-arteana eta bere orripeko gizaki, izaki, gertaera ta autuak aotan arturik, mintza gaitean, mintza. Arranondoko berbereko amon bati entzun nion beñ, bigira bat, lagun-arteako etšebiltzarre bat, bukatuta, bakoitza bere legorperako jeiki oi ziranetan, etšeko andreari esaten zitzaiola:

Esan-egiñak parkatu
— *Ate-ondoan sakatu:*

erantzun oi zuela etšeko andreak. Guk eztegu alkarri ezer barkatu bearrik izango, liburu onen azken-orri aldeira irakurri ta gero: poztu bai, ez gutši; ta irakurgailariari eskerrak eman ere bai, ta asko.

Izan dezakean bizkaitar itz ta esakera mamintsueñez, jantzi ditu berak bere Tramana ta Bris, Mañasi ta Josepa, Tšanogorri, Kitolis ta gaiñerakoak. Naikoa lan Atharratze-Maule-Barkoše-aldeko *üskáldun* zankarin, gorputz-lirain, begi-zoli, oiuzale, tšoriak egaz ibilteko bezela dantzarako sortuak diruditen šuberotarrak; naikoa lan KRESALA-REN orri-arteako lagunak zer dioten ulertzea (aditzea). Arranondo Donostia-ondorago balego, orduan, eguzkiak argiastetik goizaldera egiten duen bidea, egingo luke, gutši dala, aien belarri ta begietan liburu onetan *bizi* diran euskaldun osoen izketak.

Bazterretik bazterrera
¡Oi munduaren zabala!

maiz oi ugin oi dezuten Lapurtar, beko napar ta suberotar ezkonberriak; Euskalerrria, zuena delarik, erdizka edo laurdenka baizik ezagutzen eztezuten anaiak, jaun *erretoraren* eskuz Jainkoak batu ta beretu zaituz-

(1) «Andizuren» antšina erderazko, «honor, *honneur*» zan, eta hai gaur ere, nai badegu. EMAITEA, ANDIZUREN; ARZAITEA, MINGARRI; dio esakune zar batek.

ten egunean, Bordelera (1) naiz «Biarno hortarat» zijoazten senar-emazte alkar maiteak, zatozte gureganontz, etsetik irten bearrik eztezutenezkero; ikasi ezazute badituela mundu zabalak, Kaskoin-bearnesen mugaz gain, badituela bazter edatuak; eta Donostiako urian, lerdea ezpañetan bera dezutela, eguerdi bat, igarotakoan, ar ezazute itsasondoko burdinbidea ta ziri-zara, ziri-zara alderatu zaitezte Arranondora.

Itsasuri orren berriak KRESALA-ren orrietan bilatuaz, alde batean Lekuito ta bestean Musturzulo daukazkila jakingo dezute. Deban burdinbidea utzita, bere albouri orren galdezka luzarotño ibilita ere, eztituzute beingo-beingoan arkitu al izango. Tramana ta Bris ta Tšanogorri bezela, beste iru izen oiek ere izengaitzoak dira, batez ere Musturzulo ta Lekuito. Zuek, bear bada, Arranondo toki agiri, aizetsu, eguzkia darion uri bat dala uste izan zenezaketete. Ala bear luke. Errekarte sakonak, errekarte-izatea galdu nai ezpadu, aldamenean mendia bear du, berak bere zorua be-be-bean bezela, burua goi-goi-goian duen mendi odeitsua.

Debatik irten eta kokoriko uretan tšipi-tšapa dakutsuten uritsoa utziaz, iru edo lau bide-ukondo igarotakoan, sudurrez jo bear izango dituzute etseak, Arranondon zaudela jakiteko. Lekuitori itomena oso osorik eta Musturzulori musturra ta zuloa erdizka beintzat kenduta, an dago Arranondo Santa Klara-ri bere barrenaldeko basaria (2), lasaitu ta asnasa artzeko, eskatzen.

Uriz uri eztezute orrera elduaz ez Venezia ez Stockholm arkitu; erriz erri, edo argiroago, uritarrez uritar, gizonez gizon, begia beteko diezute Arranondotarrak. Tsapela belarrietaragiño ta eskuak kaltza-sakeletan, tšartesa ibaia bezain urdin-iluna, ibilpidea baratza; kaltzak beltzak, beste edozein uritan baiño geiago; abarketak potezurra bezain zuri, andiak berak, dendetan erakusmenekotzat zinzilizka ezartekoak; bere-dinek, ezpañean itsatsirik, zigarrokondo itzalia; aldizka, ta iñoiz guziak batera ere bai, ii ta uu ugari izketan: orra Arranondoko arrantzari, izena ta gorputza baiño ere biotz andiago duten gizatzarrak.

Zabal ezazute beren liburutsoa ta itzaurreko oarkera ezti apal batzuen ondoren, EKATSA dakutsute bere aize-tšiztu, bideetako auts-zurrunbilo, leioen alkar-jote, eskuak begietara eramate ta guzti. Zeazketa orrezaz gaiñera besterik nai badezute, ara an 138 garren orrialdean «mendien egalean da itšasoaren ondoan Arranondotik L... raño... iru orduko bidea, nik ikusi ditudanetatik ederrenetako bidea... Bide orren alde

(1) BORDELE, erderaz *Bordeaux*, Burdeos. BIARNO, erderaz *Béarn*.

(2) Ain zuzen ere, Agirre nere adiskide maitea aldamenean nuela, Zumayan ikasi nuen erderazko «marisma, *marécage*»-ri dagokion itz eder au.

batetik ikusten da, oraiñ aldatz bera datorren solo gariz betea, gero sagastitso bat, laster baserri eder bat, beingoan iratza zabal berdea, gastañadi andia urrengo, aristi tantaitua ondorean, errekondu sakon bat noizean beñ, sagasti andiak ostera, soro landuak barrero, ta bidearen biurri batean, usterik gitien dan orduan, burualde guztia arrano goitarrez inguraturik daukan ikartigarritzko atsi andi baltz sendo ta arro zerurutz jasoa».

Eztezute damu izango zeazketa guztia osoro irakurri ta gero «atsetan» dabiltzan kokolo zonzonak zertan ari diran ta zer dioten irakurtea.

Asko dira, gauza izugarritzko ederrak ikusteak baiño, gizaki on, egiaz onak, ezagutzeak pozago egiten dituenak. Zuek ere ore onezazkoak bazerate, Arranondon zer-ikusi andirik otedagoan jakin-orduko, zoazte Mañasi ezagutzera: Tsano gorriren alaba zindo, zintzo, papo-gorri, biotz-zabal, itz-urri, Erregiña izateko ez biotzik, ez bururik, ez mendurik aldatu bearko elukean Mañasi. Astaputz-ezagutza egitea eder bazaitzu, orra or Euskalerriko astaputz guztien buru izateko nere baietzak utsik egingo elioken Don Jose Antonio Egurbide.

Betarik banu, erakutsiko nizukete Kitolis gaisoa, eskuan indarrrik baiño bizkarrean urte geiago izanarren, lanean ari dan aguretso maitagarria; eramango zinduzket Andre Mariaren elizara, batean itzaldia entzun, bestean tsartelak ematen ikusi, bestean aste santuko elizbira ikusgarriak begiztatzera.

Euskerazko liburu ederrak maite badituzute, liburu au bein zabalduetzkeru, eztiuzute eguzkiari lotara joaten utziko, orri guziak burutik burura irakurteko zuen begiai astia eten gabe. *Nunc dimittis-a* elduta-koan, uste det zuek zuentzako nik nere buruari esan diodana esango dezutela: lan guri gozo au Agirre apaizaren biotzetik, armiarbaren sabeletik sarea bezala, sortu dala: me, garbi ta orapilorik gabe. Egiazko euskaluri ortatik irten-orduko, galdezazute non bizi dan Sardinza eta berarengandik jakin ezazute zergatik sartu zion irakurgailari bikaiñari arako andaluzkada 210-garren orrialdekoa. «Ordu bi osoan ibilli zan gure gaste umantkorra bere gurasoagaz zamaturik, itxaso aserratuaren erdian, bakartaderik itzalenean, izatekorik trebe, zall, zoli ta zimelen, ausardi ta gaitasuuk andienean; atuna baño azkarrago, izurdea balo gogorrigo, balea baño adoretuago...».

Bi ordu igerika, aita bizkarrean zuela; itsaskia ere etzan ezne-zuku bol-bol irakiten dagoena: «amorratua» zala lentsoago irakurri degu. Iraslariak herri auk Sardinzagandik izan ditu; eta zalantzik gaberren siniz dezagun, ark bere artean egin zuela: zarrari sinizten ezpazazio ere, alegia beintzat sinizten diogulakoa egin bear zaio.

Zoazte gero Tsanogorrirengana zerbait esatera; baiña gero zuen

euskera, belarrian ain erraz tsirrist egiten digun orrezaz, itz egin baze-nezakiote, ark bereala esan dezake: «Arpegikera da gorpuzkera geu lakošiik jatzuz eurok; baiña onen miiña ingelesa edo prantzesa edo orretarikuu da». Gizon ori, uste dedanez, jatorrizko Arranondotarra bada, eztezute igarriko azken-iztšo orretan «da» ala «de» esan duen. Ona zuek arri esan zenezazkioten itzak, baldin eskueran arkoskorik ezpadu. «O gizon: Don Jose Antonio barrero aberastuta eidator, urre eida ta Diputau egin bear eidabe; ta badakizu, erriko semea be bada ta masi egiten be badaki-ta...

— Ta botuu ¿ezta alan? ¿Botuu nori emon? Tramanari lenaa nik, eun banitu be».

Aitonaren bizitasuna gozatzeko, galdetu non dituen bere ilobatsoak, Anjel ta Mañasiren aur sotil galant ederrak; eman onei musu andi bana ta agindu eskatu dezaiotela, berak ezaguterazi dizkigun euskalzale bikaiñari, nik nere barrenean išil-mišilka zuen itz polit bat artuta, eskatu dedana: Arranondoko seme, KRESALAREN Aita: urtean «baño» nai giñuke.

X.

